



IRATXU, 2001-11-2
333 zk.

Aparkatzeko toki faltak arazo ugari sortu ohi ditu erietxeen inguruetan. Garabia, esaterako, jo ta ke ibili ohi da lanean, gaizki aparkatuta dauden ibilgailuak eramaten. Horrexegatik, Udalak eta Osakidetzak hainbat trafiko aldaketa egiteko asmoa dute. Proiektu honen arabera, erietxeen inguruetan, lau karriletako

errepidea egingo da, edozeinek erabil dezan. Errepide honetan aparkatzea, hala ere, galarazita egongo da. Beste errepide bat ere egingo da, honako hau bi karriletakoa eta erietxeen barneko trafikoari begira, eta bertan autobus geltokiak eta lurrazpiko aparkalekuko sarrerak jarriko dira, besteak beste. Horrez

gain, Udalak garraio publikoa bultzatu nahi du inguru honetan.

Beraz, Ernesto Gasco Bide Publikoetako zinegotziak adierazi duenez, "lurrazalean egin beharreko lanak kontuan hartuko dira, autobusen joan-etorriak traba ez ditzaten".

Zazpi milioi pezeta auzo elkarteentzat

Enrique Ramos Auzoetako zinegotziak jakinarazi duenez, Donostiako auzoetan lanean diharduten hainbat elkarteek zazpi milioi pezetako dirulaguntza jasoko dute. Ramosen esanetan, Udalak 32 auzo elkarteren dirulaguntza eskara jaso zuen: "hainbat arrazoi medio, sei eskaera bazterrean utzi ditugu eta beraz, 26 elkarte dirulaguntza izango dute". Auzoetako zinegotziak adierazitakoaren arabera, datorren urtean Udalak teknologia berriak sustatzen dituzten elkartei diru gehiago emateko asmoa du.



Beste parke bat Bidebietan

Bidebieta auzoak beste parke bat izango du, kiroldegia eta San Frantzisko Xabier eliza arteko eremuan, hain zuzen. Eremu honetan portlanezko plaza bat dago gaur egun eta Udalaren helburua berdeguneak, haurrentzako jolasak, eserlekuak, mahaiaik eta kioskoa jartzea da, besteak beste. Udalaren esanetan, plazak egun dituen 7.500 metro karratuetatik ia erdia berdeguneak egiteko erabiliko da. Udalak jakinarazi duenez, bestalde, galdeketa egin zuen bidebietarren artean nolako parkea nahi zuten jakiteko eta azkenean, behin betiko proiektuak auzotarren iradokizunen %80 jaso du. Parkeak negurako bukatuta behar luke.



Kontxako bidegorria eztabaidagai

Kontxako bidegorria dela eta, bi udal gobernukideak, PSE-EE eta PP, berriro ere aurrez aurre izan dira. Joan den asteartean, hilak 29, Udal Gobernu Batzordeak bilera egin zuen eta PPK PSE-EEren Kontxako bidegorri proiektuaren aurkako botoa eman zuen. PSE-EEk Kontxako pasealekuan kotxei karril bat kendu nahi die, bidegorria bertan jartzeko. PP, aldiz, bidegorria Mirakontxako aldapan egitearen aldekoa da. Popularrek PSE-EE-ren egitasmoa kritikatu dute, "bestelako alternatibak aztertu ez direlako".